

UNIBERTSITATE-BEKA ESKATZEKO BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA (2025-2026 IKASTURTEA)

- ✓ Ez da agiririk onartuko paperean, eskabidea erabat elektronikoa baita.
- ✓ Nahitaezko dokumentu guztiak erantsi behar dituzu **"Erantsitako dokumentuak"** fitxan. Era berean, eskaera amaitu ondoren, edozein unetan egin ahal izango duzu, "Aldaketak/Dokumentuak aurkeztea" fitxaren bidez
- ✓ **Ez da beharrezkoa izango** aurreko ikasturtean espediente elektronikoan sartu ziren **dokumentu iraunkorrak (I)** aurkeztea, baldin eta horietan jasotako informazioa aldatu ez bada.
- ✓ **Aldi baterako dokumentazioa (A)** urteko eskabide bakoitzarekin aurkeztu beharko da.
- ✓ **Aurkeztu** beharreko agiriak:
 1. **Eskatzaile guztientzat** derrigorrezkoak diren dokumentuak, eskabidean jaso behar direnak.
 2. **Zirkunstantzia akademikoen arabera** derrigorrezkoak diren dokumentuak.
 3. **Zirkunstantzia pertsonalen arabera** derrigorrezkoak diren dokumentuak.
 4. **Zirkunstantzia ekonomikoen arabera** derrigorrezkoak diren dokumentuak.
 5. Zenbait kasutan **beharrezkoak izan daitezkeen** beste dokumentu batzuk.

1. ESKATZAILE GUZTIENTZAKO NAHITAEZKO DOKUMENTUAK, ESKABIDEAN JASO BEHARREKOAK	
I	00- BANKU-ZIURTAGIRIA Eskatzailearen libretaren edo kontu korrontearen IBANa adieraziz (titularra edo titularkidea izan behar du). Ziurtagiri horren ordez, jatorrizkoaren fotokopia edo banku elektronikoaren inprimakia aurkeztu daiteke.
A	01- GRADU EDO MASTERREKO IKASLEAK 2025-2026 ikasturteko matrikularen kopia , matrikulatuta dagoen ikasketak, matrikulatutako kredituak eta ordaintzen duen prezioa adierazita.
2. INGURUABAR AKADEMIKOEK ARABERA DERRIGORREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK	
A	02 - GRADUKO LEHEN MAILAKO IKASLEAK BATXILERGOTIK sartzen bada: unibertsitatara sartzeko nota (NAU) jasotzen duen ziurtagiri akademikoa.
A	03- GRADUKO LEHEN MAILAKO IKASLEAK BATXILERGOTIK sartzen EZ bada: sartzeko aukera ematen duen titulazioaren espediente akademikoa, batez besteko nota jasotzen duena.
A	04 - MASTERREKO LEHEN MAILAKO IKASLEAK Ziurtagiri akademikoaren kopia osoa, sarbide eman dion graduaren batez besteko notarekin .
A	05- UNIBERTSITATETIK ALDATU DIREN IKASLEAK GRADUA : aurreko ikasturteko ziurtagiri akademikoa, batez besteko nota jasotzen duena.
A	06 - MUGIKORTASUN PROGRAMA NAZIONALEAN EDO NAZIOARTEKOAN DAUDEN IKASLEAK Parte-hartzearen ziurtagiria, datak eta bizilekua adierazita.
A	07 - MATRIKULARI DAGOKIONEZ ESKATUTAKO GUTXIENEO KREDITU KOPURUAREN SALBUESPENAK Matrikula partziala : aldi berean ikasketak eta lan-jarduera egiten badituzu: lan-kontratuak, lan-bizitza...
A	08- ERRENDIMENDU AKADEMIKOARI DAGOKIONEZ ESKATUTAKO GUTXIENEO KREDITU KOPURUAREN SALBUESPENAK Osasun-arrazoiengatik errendimendu akademikoa EZ gainditzea: Osasun Publikoaren Sareko espezialistak emandako ziurtagiri medikoa .
I/A	09 - EGOITZA-OSAGAIA ESKATZEN BADUZU (IKASKETAK DIRELA-ETA) Alokairu-kontratuaren kopia osoa, eskatzailearen izena eta ordaintzen duen zenbatekoa adierazita.
A	10.- EGOITZA-OSAGAIA ESKATZEN BADUZU (IKASKETAK DIRELA-ETA) 2025eko irailetik aurrera hilabeteko alokairua ordaindu izanaren egiaztagiria , nahitaezko datu hauekin: eskatzailearen izena, zenbatekoa, data eta ordainketaren kontzeptua.
A	11- EGOITZA-OSAGAIA ESKATZEN BADUZU (IKASKETAK DIRELA-ETA) Egoitzan edo antzeko leku batean toki bat erreserbatu dela egiaztatzeko agiria eta ordainagiria .
A	12 - EGOITZA-OSAGAIA ESKATZEN BADUZU (IKASKETAK DIRELA-ETA) Ohiko bizilekuaren eta ikastetxearen arteko distantzia 50 km-tik beherakoa bada, egiaztatu egin beharko da ikasturtean zehar ohiko bizilekutik kanpo bizi behar dela, dauden garraiobideak eta eskola-ordutegiak nahikoak ez direlako.
3. ZIRKUNSTANTZIA PERTSONALEN ARABERA DERRIGORREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK	
A	13- ZURE UDALA ELKARRERAGINGARRITASUN-ZERBITZUKO KIDE EZ BADA EDO 2024/12/31N ADINGABEA BAZINEN Eskaera egitean ohar bat agertzen bada eransteko edo izapidegileak hala eskatzen badu , bizikidetza- edo familia-unitatearen ohiko bizilekuaren errolda kolektiboaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, 2024ko abenduaren 31ko egoera jasotzen duena.



I	14.- GURASOAK BANANDUTA EDO DIBORTZIATUTA BADAUDE Banantzearen edo dibortzioaren baldintza ekonomikoak zehazten dituen hitzarmen arautzailearen, epai judizialaren edo notario-akordioaren kopia.
A	15.- GURASOAK BANANDUTA EDO DIBORTZIATUTA BADAUDE Hitzarmen arautzailean ezarritako mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik demanda judiziala dagoenean, horri buruzko ebazpen judiziala aurkeztuko da (gaurko datakoa).
I	16.- ZURE BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEREN BATEK DESGAITASUNA EDO MENDEKOTASUNA BADU Foru Aldundiaren ebazpenaren kopia, desgaitasun- edo mendekotasun-maila aitortzen duena.
I/A	17.- ESKAERA INDEPENDENTE GISA AURKEZTEN BADUZU (GURASORIK GABE) 2024/12/31n zure ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia (etxebizitza jabetzan baduzu, ez duzu zertan ezer aurkeztu).
I	18.- ESKAERA INDEPENDENTE GISA AURKEZTEN BADUZU (GURASORIK GABE) Administrazio kudeatzailearen ziurtagiria, emantzipazio-programa batean parte hartu duzula egiaztatzen duena.
I	19- GURASO BAT HIL BADA Heriotza-ziurtagiriaren kopia.
4. INGURUABAR EKONOMIKOEN ARABERA DERRIGORREZKOAK DIREN DOKUMENTUAK	
A	20.- 2024ko ERRENTA-AITORPENA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPO AURKEZTU BADU KIDE KONPUTAGARRI BATEK Deklarazio horren kopia. (EZ da beharrezkoa 2024ko errenta-aitorpenaren kopia aurkeztea, pertsonak zergak Euskal Autonomia Erkidegoan ordaindu badituzte)
A	21-SOSTENGANTZAILE EKONOMIKO NAGUSIETAKO BATEK 2025ean LANGABEZIA, ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEA, ALDI BATERAKO LAN ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEA EDO JARDUERA-ITXIERAKO EGOERA BAT IZAN BADU (GUTXIENEZ 3 HILABETEZ) SEPEren edo enpresaren dokumentua , egoera hori egiaztatzen duena.
A	22.- ERRENTARI LOTUTAKO OINARRIZKO ZENBATEKOA JASO AHAL IZATEKO 2024ko zerga ekitaldian eskuragarri zegoen gizarte-laguntzaren bat (DSBE, BGDS, EPO, GLL, GSINren laguntzak, langabezia-subsidioa, etab.) gutxienez hiru hilabetez kobratu izana egiaztatu beharko da.
5. KASU BATZUETAN BEHARREZKOAK IZAN DAITEZKEEN NAHITAEZKO DOKUMENTUAK	
I/A	23 - BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEREN BATEK BERE KONTURAKO JARDUERA EKONOMIKOA EGITEN BADU JABETZAN DUEN HIGIEZIN BATEAN 2024ko zerga ekitaldian jarduera higiezin horretan helbideratuta zegoela egiaztatzea.
I/A	24- ONDASUN HIGIEZINEN BATEN JABETZA SOILA JUSTIFIKATZEKO Jabetza Erregistroaren gaurko ohar soila.
A	25- ONLINE IKASKETETARAKO EGOITZA-OSAGAIA ESKATZEN BADUZU Unibertsitatearen ziurtagiria, ikasketa erdipresentzialek gutxienez aurrez aurreko nahitaezko 15 kreditu dituztela justifikatzeko (egoitza-osagaia salbuespen gisa jaso ahal izateko).
A	26- UNIBERTSITATE-PRESTAKUNTZA DUALETIK DATOZEN DIRU-SARRERAK JUSTIFIKATZEKO Prestakuntza-zentroak emandako ziurtagiria , prestakuntza egiaztatzen duena eta ikasketak Unibasqen edo Estatuko beste kalitate-agentzia batzuen zigilu duala duen titulazio bati dagozkiola ziurtatzen duena.
A	27- UNIBERTSITATE-PRESTAKUNTZA DUALETIK DATOZEN DIRU-SARRERAK JUSTIFIKATZEKO 10 T ziurtagiria
A	28- LANBIDE-HEZIKETA DUALETIK DATOZEN DIRU-SARRERAK JUSTIFIKATZEKO Prestakuntza-zentroak emandako ziurtagiri bat , prestakuntza egiten ari den enpresa zehaztuta.
A	29- LANBIDE-HEZIKETA DUALETIK DATOZEN DIRU-SARRERAK JUSTIFIKATZEKO 10 T ziurtagiria
A	30- KIDE KONPUTAGARRIETAKO BATEK LANEKO DIRU-SARRERAK BADITU, BAINA EZ BADU ERRENTA-AITORPENA EGITEKO BETEBEHARRIK 2024ko 10 T aurkeztu, gastu kengarriak deskontatu ahal izateko.
A	31- UNIBERTSITATEAK BERAK EDO BESTE ERAKUNDE BATZUEK IKASKETETARAKO EMANDAKO LAGUNTZAK JASOTZEN BADITUZU Unibertsitate/erakundearen ikasketa-laguntzaren ziurtagiria, zenbatekoa jasotzen duena.
A	32- BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEREN BAT GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA BADA Genero-indarkeriaren biktimaren egiaztapena (kondena-epaia, babes-agindua, kautelazko neurriak erabakitzen dituen ebazpen judiziala edo Fiskaltzaren txostena).
A	33- BESTE DOKUMENTU BATZUK Eskatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen beste dokumentu batzuk.